

Alaitz Vives

KAZETARIA

## Zenbat pitilin!

**H**edabideen kontsumitzaile garen heinean, haiek merkaturatzen dituzten hainbat produkturi erreparatuta, sarriegi genero bakarreko gizartean gaudela dirudi. Horren aurrean “Zenbat pitilin!” nahi baino gehiagotan ateratzen zaidan esaldia da. Zaharrago direnek aurrera egin dugula esango dute eta ezin ezetzik esan, baina horrek ez du errealitatea ezkututzen, deigarria baita, nola irudika litekeen gizartea, erdia kanpoan lagata. Maria Gonzalez Gorosarri, kazetari eta ikertzaileak bere blogean gai honi heltzen dio (albistetan.blogspot.com). Berak jasotako iturrietatik, nazioarteko albisteak aztertu eta honatx datu batzuk: albisteetako protagonisten %76 gizona dira, andreak ez dira albisteen interpretazioan lagunduko duten ahots aditu gisa agertzen eta interes orokorreko albisteek ere, ez dute emakumeen ikuspeirik ematen.

Emakumeak lan, unibertsitate eta ikerketa merkatuetan aurrera egin ahala, egoera hau modu “naturalean” konpon zitekeela uste izan dugu askok, baina ondorio gisa Gorosarri bere blogean jasotako ikerketa baten arabera, ezer egin ezean, albisteen genero parekotasuna ez da hurrengo 30-40 urteetan lortuko.

Hedabide publikoei begiratuta, 30 urtetan



DANI BLANCO

EiTBk zuzendari gizona gizona baino ez ditu izan eta antzerakoa gertatzen da irratietan. Gehiegizkotasunak (gizona gizona) edo gabeziak (emakume gizona) badu eragina erakunde horietan ekoizten diren produktuetan. Adibide bat baino ez bada ere, azken asteetan ETB2n emisioan dagoen dokumental saio bati erreparatuz, ez ei dago Trantsizioko urteetan gertatutakoa argitzen lagunduko digun andrazkorik.

Duela aste batzuk EAEko egunkarietako zuzendariak batu ziren mahai inguru batean irudikatutako argazkiaren aurrean ere, testu honen izenburua errepika genezakeen (bi zuzendari falta ziren, bai, haiek ere gizona gizona). Errealitate kontraesankorra da nolahi ere, medioetako erredakzioetan emakumezkoak baitira nagusi, baina kopuruari erreparatuta soilik.

Egunerokotasunean, ia-ia hiritar izateari utzi eta kontsumitzaile huts bihurtu garen honetan, kontsumitzaile aktibo izateak ematen digun botereaz balia gaitzake, generoa edozein dela ere. Internet sarea baliabide handia da horretarako. “Kontsumitzen dut eta beraz, banaiz” leinari eutsi, gure egin eta horrek ematen digun boterea baliatuz, produktu ekoizleei “zenbat pitilin!” “pitilin gehiegi” direla adierazi geniezaieke. ■



«  
Errealitate  
kontraesankorra da  
nolahi ere,  
medioetako  
erredakzioetan  
emakumezkoak  
baitira nagusi,  
baina kopuruari  
erreparatuta soilik  
»

TXANDAN

Joxerra Garzia



Lehendik ere bagenekien: esanak esan, unibertsitatean irakaskuntza da gutxienekoa.

Eskolak ganoraz ematen tematzen den gajo/gizajoak txartel guztiak ditu azken putz geratzeko, hobe ikerketan xahutzea indarrak. Puntuak irabazteko baizik balio ez duten ikerketak egitea komeni da, noski, ikerketak konponduko duen arazoa norberak propio asmatuta, benetako arazoket ikerketa zaildu eta ikerlea zikindu besterik ez baitute egiten. Ikergai otzarak behar dira, esaneokak.

Orain, berriz, gure nagusiek maskarak erantzi eta

## Irakasle putz

muturrera bota digute mehatxua. Aurretzean, ikerketan behar bezala saiitzen ez den irakasleak egundoko zigorra izanongo du, izugarrizko kondena: eskolak eman beharko ditu.

Estimatzekoa da hain argi mintzatu izana, hartara lasai egin ahal izango baitugu barre irakaskuntzaren bikaintasuna aipatzen diguten aldiro.

Puntu biltzaile otzan baino, nolahi ere, nahiago azken putz, azken putz baino ere gutxiago izatera kondenatuen –ikasleen– esker ona bezalako altxorrik ez baitago irakasle batentzat. ■

